

8.FUNTSEZKO JARDUERA

Funtsezko jarduerak proiektuaren funtzionamendu egokia bermatzen dute. Jarduera nagusietako bat aurikularren diseinua eta garapena da, prototipoak sortuz eta produktua etengabe hobetuz. Horrez gain, ekoizpenaren plangintza eta kontrola egitea ezinbestekoa da, kalitatea eta kostuen kontrola ziurtatzeko.

Beste jarduera garrantzitsu bat marketina eta komunikazioa da, marka ezagutarazteko eta bezeroengana iristeko. Salmenten kudeaketa eta banaketa ere jarduera nagusien artean daude, produktuak garaiz eta baldintza egokietan irits daitezen.

Azkenik, bezeroarentzako arreta eta feedbackaren kudeaketa funtsezkoak dira, erabiltzaileen gogobetetasuna eta produktuaren etengabeko hobekuntza bermatzeko.